

San Fidel ikastola

Gernika-Lumo

Funcionamiento y
normativa del comedor

Jan osteko antolaketa

Haur hezkuntza

Umeak euren monitorearekin hortzak garbitzera joaten dira.

Ondoren ekintzak eguraldiaren arabera bideratzen dira:

- Eguraldi ona badago, umeek kanpoaldean jolasten dute monitoreek euren eskura jartzen duten materialarekin (baloiak, eraikuntzak egiteko jolasak, puzzleak, margozteko materiala...)
- Eguraldia txarra bada, umeek esparru ezberdinak erabiltzen dituzte : aretoa, gimnasioa. Denbora honetan bideoak ikus ditzakete, antzerkiak egin eta ikusi, jolastu, dantza egin, margoztu ...

Horrez gain, nahi duten ikasleek eskolaz kanpo bezala eskaintzen den ingeles klaseetara joan daitezke.

Lehen hezkuntza

Ikasleek jan ostean hortzak garbitzeko aukera izango dute.

Ondoren ekintzak eguraldiaren arabera bideratzen dira:

- Eguraldi ona badago, umeek kanpoaldean jolasten dute monitoreek euren eskura jartzen duten materialarekin (baloiak, eraikuntzak egiteko jolasak, puzzleak, margozteko materiala...)
- Eguraldia txarra bada, umeek esparru ezberdinak erabiltzen dituzte : aretoa, gimnasioa. Denbora honetan bideoak ikus ditzakete, antzerkiak egin eta ikusi, jolastu, dantza egin, margoztu ...

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek eskolako lanak egiteko aukera dute horretarako eskaintzen zaien gela batean.

Horrez gain, nahi duten ikasleek eskolaz kanpo bezala eskaintzen den ingeles klaseetara joan daitezke.

D.B.H

Ikasleek jan ostean hortzak garbitzeko aukera izango dute.

Gurasoen baimenarekin ikasleak jan ostean, ikastolatik atera daitezke.

Ikastolan geratzen diren ikasleek eskolako lanak egiteko aukera dute horretarako eskaintzen zaien gela batean. Edota jolas lekuak erabil ditzakete.

Jantoki zerbitzuaren funtzionamendua

Jaten geratzeko

Haur Hezkuntzako 1. zikloko 0 eta 1 urteko umeen kasuan, egunean bertan jakinaraziko zaio tutoreari umea jaten geratuko den ala ez.

Haur Hezkuntzako 2 urtetik gora, jantoki zerbitzua urte osoan erabiltzeko izena eman behar dute.

Noizean behin jaten geratzeko aukera ere badago eta horretarako egun horretan goizez idazkaritzan hartu behar da ticketa.

Faltak eta itzultzeak

Ikasle bat faltatzen bada janariaren gastu fijoak ez dira itzultzen (langilegoa eta mantenuari dagokiona).

Bakarrik itzultzen da gastu aldakorra eta gaisotasunagatik bada, idazkaritzan abisua eman et abigarren bazkaritik aurrera.

Itzuli beharreko dirua hilaren amaieran emango da idazkaritzan prestatutako ordainagiria sinatu ostean.

Ikasleak zelan jan duenari buruzko informazioa

- **HH 1. zikloan** egunero daramate **idatziz** informazio hau.
- **HH 2. ziklotik eta Lehen Hezkuntzako 2.** mailara arte, **aste bukaeran** ematen zaie idatziz informazioa. Baina txarto-txarto janez gero, ahoz komunikatzen da aste bukaera baino arinago.
- **Lehen Hezkuntza 3. mailatik DBH 4. mailara** artekoentzat, **ikasturtea hasi eta hilabete batzuetara idatziz** bialtzen da eskutitz bat etxera informazio hau eskainiz. Hain ondo jaten ez duten ikasleen kasuan, bigarren eskutitz bat ere bialtzen da beharrezkoa ikusten bada.

Jantokiko arauak eta ohitura onak

- Mahaian jarri aurretik komunera joan eta eskuak garbitu behar dituzte.
- Gelatik jaisten dituzten motxilak edo liburuak horretarako prestatuta dagoen tokian utziko behar dira. Jantokiko arduradunaren aginduak bete behar dira.
- Jantokiko langileak errespetuz tratatu behar dira eta erantzun egokiak eman.
- Beharrizanen bat izanez gero, behar bezala egin eskaria.
- Jantokian ezin da: janaria bota, mahaia hondakinez beterik utzi. Erabiltzen den guztia batu behar da.
- Jantokitik ezin da janaririk atera. Postrea bertan jan behar da.
- Bandeja hartu aurretik hilada errespetatu, sakatu, jo edo zarata atera barik.
- Hiru plateretatik jan behar da. Salbuespenetan bakarrik geldituko dira zer edo zer jan barik.
- Bandeja uzterakoan sakakada barik egin behar da.
- Egunero gutxienezko kantitate bat jan behar da.
- Jantokiko arduradunak kontrolatuko du ikasleak zenbat jaten duen, gurasoei horren berri emateko.
- Jantokitik ezin da atera ikasle guztiak jantokira sartu arte.
- Jan ostean lanak egiteko gelan ezin da jan.
- Gelara ezin da igon jan ostean.
- Jantokiko arduradunak kontrolatuko du ikasleak zenbat jaten duen, gurasoei horren berri emateko.
- Baimenik barik ezin da irten kalera jan ostean.
- Baimena dutenak ezin dira 13.30ak baino arinago irten kalera. 13:30 ean zabalduko da atea kalera ateratzeko.